

LIZARDI BHI	2008-09	Gaiak:	PUNTUAZIOA:
Kimika	3. ebal	TP, Loturak	
2009-05-19		Kimika Organikoa	

Ariketa #1

4 elementuren zenbaki atomikoak hauek dira:

X=20, Y=16, Z=19, R=17

Adierazi, erantzuna justifikatuz, elementu horietatik zein den

- elementu alkalino eta halogenoa
- beraien elektronegatibitateak ordenatu
- elementuen balentzia ionikoak
- ematen dituzten ioien tamainak ordenatu
- X eta R elkartzean emango duten substantzia (formula eta substantzia-mota)

2 puntu

Ariketa #2

Substantzia hauek urtzen ditugu: sodio kloruro, kloro, diamantea, potasio kloruro, ura. Egin ondorengoa:

- urtzean zer lotura-mota edo indar-mota desegiten diren esan
- fusio-puntuen arabera ordenatu
- esan korrontea eroango duten ala ez eta zer kasutan

2 puntu

Ariketa #3

Ondoko molekulak aztertu adieraziz:

- karbono bakoitzaren eta atomo zentral bakoitzaren hibridazio-mota
- lotura-motak (sigma ala pi diren)
- angeluak
- molekularen geometria

1) HCOOH 2) H₂O 3) CH ≡ CH 4) NH₃

2 puntu

Ariketa #4

Ondoko erreakzioak idatzi, ahal duzun informazio gehiena emanaz eta substantziak izendatuz:

- a) etanolaren errekuntza
- b) propanalaren oxidazioa
- c) 2-butanolaren deshidratazioa
- d) azido metanoikoaren esterifikazio-prozesu bat
- e) 2-bromobutanotik butanonara pasatzeko prozesua

2 puntu

Ariketa #5

Definitu:

- a) orbita eta orbital elektronikoak
- b) sigma eta pi loturak
- c) alkohol primario, sekundario eta tertziarioen oxidatzeko aukerak
- d) isomeria geometrikoa
- e) n eta l zenbaki koantikoak

2 puntu